



MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

309 - 2023ko ILBETZA



ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!






POSTONTZIA

- ✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?
- ✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.



BERTAKO HARAGIA

Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Ali, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Mary Fe Etxarri, Maider Agirrebarrena, Maddi Sotil, Joxe Mari Zabaleta, Aralar Musika Eskola, Lekunberriko Udala, Guardia Zibila, Irantzu Otermin, Ainhoa Beraza, Ane Zabala, Aitor Goikoetxea, Larraungo Hazia, Cederna Garalur, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Oier Zuñiga

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04



KUXKUXEAN Ilbeltzeko zorion agurrak.

8



ELKARRIZKETA



Pako Azpirotz Goikoetxea

11



MAITE DITUT MAITE Betelu-Limitte-Intza

14



BATZARRE

20



KULTURA Adur Cobos

22



ERREPORTAJEA



Mintzakide

25



KIROLA

26



ERREPORTAJETXOA Olentzero eta Maridomingi



28



PLAZATIK PLAZARA

Mendialdeko Behatoki Sozioekonomikoa

31



AGENDA



Mikel Aldareguia Mateo

Ilbeltzaren 9an, 6 urte.
Zorionak eta ongi pasa.
Muxu haundi bat, aitatxo eta
amatxoren partez. Hain maite
zaitugu.



Eñaut Garmendia Aristi

Ilbeltzaren 4an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun!!!
Segi holaxeko jator ta alaie izaten! Asko
matte zatteu!!! Muxu haundi bat etxeko
guzin partez!



Unai Argiñarena Saralegi

Ilbeltzaren 16an, 8 urte.
Haunditzen ari dela gure etxeko
txikia! Jarraitu orain bezain
alai, jator eta zoriontsu. Asko
matte zattugu. Muxu bat familia
guztiaren partez.



**Enara Etxarri Urbizu,
(Lekunberri)**

Ilbeltzaren 18an, 9 urte.
Zorionak, Enara!! 9 urtekin
fundamentua sobera izango
duzu edozein arlotan, ezta?
Maite zaitugu, Enaratu
(Etxekoak).



Ane Amoztegui Goikoetxea

Ilbeltzaren 13an, 4 urte beteko dittu
gure etxeko sorgiñak.
Segi horren bezain alai. Zorionak eta
muxu erraldoia etxeko guztien partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

Errotaldea 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillobtxiki.com
679 938 016



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

AMAIURU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

SAN MIGUEL
gasolindegia



ekin
rotulación

948 85 32 79

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



BETI ARTE, FELICIANO

Feliciano Buldain Zubillaga beteluarra joan den abenduaren 12an hil zen, 90 urte zituela. Mailope Aldizkariko kazetariontzako informazio iturri ezin hobea izan zen beti, baita Aralar Irratiko entzule eta kolaboratzaile fina ere. Umetako oroitzapenak xehetasunez oroitzen zituen. Araitzen ez ezik, Larraunen ere lanean ibilia izaki, ederki ezagutzen zituen gure txokoak. Zalantzarik gabe, bere galera sumatuko dugu. Eskerrik asko urte hauetan guztietan eskainitako laguntzagatik, Feliciano!



PRESOEN ALDEKO GAZTAINAK ETA BERTSOAK

Abenduaren 30a izan zen 2022ko azken ostirala, eta Sarek ekitaldi bereziak antolatu zituen egun horretarako gurean: batetik, Araitzen elkartean gaztainak banatu zituzten, eta, bestetik, kontzentrazio musikatua egin zuten Lekunberrin; ondoren, Uitziko elkartean bertso saio ederra egin zuten, Julio Soto eta Oihana Iguaranekin. Sarek manifestazioa antolatu du urtarrilaren 7rako, Bilbon. Antolatzaileen arabera, urte garrantzitsu baten hasieran kokatzen da aurtengo mobilizazioa, "euskal presoen gehiengo zabala Euskal Herrian delarik".



71 ARGAZKI JASO DITUGU EGUTEGIRAKO!

Harrera ezin hobea izan du Mailoperen 2023ko egutegiak: 16 pertsonak bidalitako 71 argazki jaso ditugu, eta oso zaila izan da gutxi batzuk aukeratzea. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu, beste behin konpromisoa erakusteagatik, eta bereziki parte hartzaileei: Ainhoa Beraza, Lore Azpirotz, Alvaro Barber, Koldo Martinikorena, Rosana, Iñaki Montes, Maddi Aranburu, Amaia Azurmedi, Inge Zubillaga, Naiara Intxaurren, Adur Cobos, Ane Zabala, Hodei Goikoetxea, Marijo Arroki, Asier Arsuaga eta Yolanda Juanena.

► Leire Lopetegi (Betelu)



*Hostoak lehortu dira,
eta badoaz lurrera;
hotza ere etorri da,
urtero lez mailopera.
Egun polittak aurretik,
otordu eta hitzaldi;
senide denak elkartuz,
sutondoetan jaialdi.
Olentzerotan porroia,
mazapan ta polborroia,
Ferrero Rocher bonboia,
ta erregetako roskaia.
Gabon hauetako eskari,
osasuna nahi ugari;
ta urte berria hasteko,
gerriko berria opari.*

Doinua: Habana Hurrengoa: Asier Elizalde (Betelu)



AGUR ETA OHORE, KEPA

Kepa gure artetik joan zaigu eta Araitz-Beteluko Sareren izenean bere bizitzan zehar emandako guztiaren aitortza egin nahi dugu. Bere eta askoren ametsen alde egindako lan guztiaren aitortza. Hilabeteko azken ostiraletan Betelun egiten ditugun agerraldietan ere beti gurekin izan da. Agur eta ohore, Kepa.

Araitz-Beteluko Sare herritarra

NUREMBERG ETA PASE BERDEA ERREPIKA EZ DAITEZEN

Historia oso kaskagorra da, behin eta berriro errepikatzen da, nahiz eta pertsonaiak, gertaerak edota eszenatokiak aldatu. Giza Eskubideen Gutuna eta Nurembergeko Kodea premiazko egoera batetik sortu ziren: II Mundu Gerran politika, sinismen, esperimentazio eta zientziaren izenean egindako gehiegikeriei aurre egitea. Horrek oraingoarekin paralelismo handia dauka, uste baino handiagoa.

Iraganean bezala, mugiezinak ziruditen zenbait printzipio berriz ere zalantzan jarri eta biluzik geratu dira. Guretzat horien guztien artean Pasaporte Berdearena larriena izan da. Pasa den urrian, Europako Parlamentuan zentzugabekeria hau argi eta garbi geratu zen J. Smalli, Pfizerreko bozeramailea, galdera gakoa egin zitzaionean:

- Ikertuta eta frogatuta al zeneukaten kutsaketaren etena botika honekin?
- Ez, azkar ikertu eta ekoiztu baikenuen. Zientziaren abiadurari jarraitu genion.

Badaude COVIDaren kontrako txertoen inguruko teoria pila bat, batzuk onak eta beste batzuk txarrak. Plataforma honetatik ez gara horretan sartuko, gure taldean eta bere gertuko testuinguruan txerto mota hauei buruz denetariko osasun egoera pertsonalak baitaude: batzuek dosiren bat, beste batzuek errefortzuak eta beste batzuek ezer. Gure ustez bakoitzak badauka edozein tratatamendu mediku jasotzeko nahiz ez jasotzeko eskubidea, koakzio,

mehatxu eta debekurik gabe. COVID tratamenduak ezin dira salbuespena izan, bestela badugu Nurembergeko garaira itzultzeko arrisku handia.

Uleru al dugu Pasaportearen zentzugabekeria? Uler dezakegu zer gertatu den eta zer gerta litekeen edozein arau onartzen badugu? Uler genezake pentsamendu bakarra zalantzan jarri edo aurre egin diotenen egoera eta sufrimendua zein izan den? Zientziaren abiadura, zertaz ari gara?

Gai honen inguruan, denon bistan da Txinan gertatzen ari dena. Covid zeroko politikaren aitzakiarekin, kontrol digitalaren bitartez, osasuna, askatasuna, ekonomia, adierazpen askatasuna eta giza eskubideak behin eta berriro modu bortitzean zapaltzen ari dira, hau da, diktadura. Guk ez dugu hori nahi, ez hemen ezta han ere.

Nuremberg non dagoen eta zer gertatu zen, Giza Eskubideen Gutuna zertan datzan eta Europako Parlamentuan zer gertatu den jakiteko, edota beste edozein zalantza baduzue, jar zaitezke gurekin harremanetan. Eta bukatzeko, oraindik birusaren jatorria ez da egiaztatu, frogatu gabeko teoria ezberdinak egonda. Historiak bai egiaztatu digula, askotan botereak sortu den (edo duten) aukera bakoitza erabili duela autoritarismoari eusteko.

**Giza Eskubideak eta Osasuna
Larraun Bailarako Plataforma**
gizaosasunalarraun@gmail.com

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO AUZITEGIAK BALIOGABETU EGIN DU LEKUNBERRIKO KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA ETA SARE SOZIALAK KUDEATZEKO KONTRATUA

2022ko maiatzaren 26an egindako udal batzarrean, Lekunberriko Taldeak, komunikazio instituzionala eta sare sozialak kudeatzeko kontratua esleitu zion HAUDA enpresari, 5 urteko iraupenarekin eta 107.387,5€ diru kantitatearen truke; hau da, urtero 21.477,5 € jasoko lituzke enpresak.

EHBildu hasieratik bozkatu zuen aurka, prozesu osoa gauzaten ari zen moduagatik. Hala ere, kontratazio-prozedurak aurrera jarraitu zuen, eta kontratazio mahaia bildu zenean, EHBildutik ikusi genuen irregulartasunak gertatu zirela, eta epaitegietara eraman genuen Udalak egindako kontratazioa, prozeduran ez zelako errespetatu HAUDA eta FITFOXCOLME enpresen arteko inpartzialtasuna eta tratu-berdintasuna.

Oraintsu iritsi da Nafarroko Administrazio Auzitegiak eman duen epaia, eta EHBilduri ematen dio arrazoia. Ondorioz, baliogabetu egin du Lekunberriko komunikazio instituzionala eta sare sozialak kudeatzeko aholkularitza-zerbitzuaren kontratazio prozedura.

Epaia argia da eta honela dio: *“faltando por valorar la mitad de los puntos otorgados, entendemos que se ha vulnerado el principio de igualdad en cuanto que, al concederse previamente la puntuación objetiva, la mesa de contratación ya tenía el criterio “contaminado”, por lo tanto, se ha puesto en peligro la objetividad de la valoración de los criterios subjetivos”.*

Eta epaiaren bukaeran honela dio: *“...debemos concluir que la apertura y valoración de las proposiciones ha tenido lugar con la infracción de las garantías impuestas por el artículo 97 de la Ley Foral Contratos Públicos, lo que ha causado una vulneración del principio de igualdad...”*

Legealdi honetan ez da lehenengo aldia kontratazio prozeduretan arazoak gertatu direla Lekunberri; 2021. urtean, adibidez, Nafarroako Kontuen Ganberak nabarmendu zuen lanbide publikorako sarbidea arautzen duten oinarriko printzipioak (berdintasuna, konkurrentzia, meritua eta ahalmena) apurtu egin zirela udal kontratazio batzuetan. Ur Tratamendu Plantaren kontratazioa prozedura ere baliogabetu egin du epaitegiak legealdi honetan, irregularra izan zelako.

Beraz, uste dugu hau ez dela kasu isolatu bat, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren epai honek erakusten du gobernu taldearen funtzionamendu oker eta erratikoa. Hori dela eta, uste dugu bestelako udal eredu baten alde egin behar dugula, praktika irregularrak amaituko duena; izan ere, gure ustez, lekunberriarrok udal garden bat merezi dugu, kudeaketan arduratsua eta herritar guztientzat lan egingo duena, bereizkeriarik gabe, zuzentasunez eta inpartzialtasunez.

EHBildu, Lekunberri
Lekunberri, 2022ko abenduan.

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI



German Lasarte
HARATEGIA
ARBEONDO
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
SALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com



“Ez dago sekreturik; azkar ibili, besterik ez!”

Umoretsu eta osasuntsu bete ditu Pako Azpirotzek 100 urte. Arruizen jaioa, etxeko lanetan eman du bizi osoa, eta zura ateratzen ere lan egindakoa da. Beti izan da abila mendian, eta soldaduskan ere abilezia horrengatik gailentzen zen eskalatzaileran. Horixe da haren sekretua: bizi bizitzea.

Arruizkoa zara. Zein etxetakoa?

Etxezaharrekoa, denbora batean! Orain, Txopeenekoa, baina Etxezaharren jaiotakoa. Pako Etxezaharrekoa esan izan didate beti.

Etxezaharrekoa, eta noiz jaioa?

1922ko abenduaren 13an, Santa Luzia egunean. Arruizen, jai egiten zen Santa Luzia egunean ermitan. Jendeak jai egiten zuen, festa... festa San Migeltxon egiten zen.

Familia handia zineten? Zenbat anai-arreba?

Bost anai-arreba ginen; ni bigarrena nintzen. Manuela zen zaharrena, gero bigarrena ni, hirugarrena Jose, laugarrena Juan Cruz... baina hil egin zen behinik behin; txikitari hil zen, horretaz akordatu naiz, baina gainerakoan asko ez. Gero beste bat jaio zen, eta hari ere Juan Cruz jarri zioten nonbait, eta azkena Joaquin. Bost ginen, eta ni bakarrik bizi naiz orain.

“Lanean pozik aritzen ginen. Nahiago nuen lan egin, eskolara joan baino”

Eskolara joan al zinen?

Eskola... kar-kar! Joaten ginen, baina ikasi... gutxi! Zerbait ikasiko genuen, asko ez, e! Gogoia ere gutxi. Bat o beste baziren erabat joaten zirenak, eta haiek gehiago ikasiko zuten. Ni ez nintzen erabat joaten... lanegatik eta. Etxean ere inor handirik ez zen izaten eta. Lanean pozik aritzen ginen. Nahiago nuen lan egin, eskolara joan baino.

Eta aita?

Aita 12 urte nituela hil zen, 44 urte zituela, eta beste anai-arrebak gazteagoak izanda... Gaitzen bat izan zuen.

Azienda asko zenuten etxean?

Azienda bagenuen, bai; behiak batez ere. Azken aldian hamazazpi-hemezortzi buru edo izan genituen. Garai hartan, berriz, dozena erdi edo zazpi izaten genituen, eta gero bikoiztu egin zen. Tarteka bueltaren bat ere ematen genuen, baina lan asko izaten zen etxean. Txerriak ere bagenituen, eta oiloak. Bi txerri gizendu, eta jan egiten genituen behinik behin. Txerrikumeak saldu egiten genituen; besteentzat ere izaten ziren, ez denak guretzat.

Zer landatzen zenuten baratzean?

Baratzean aritzen ginen, bai. Alorralde asko izaten zen lehenago: patata, baba... Garia ere landatzen genuen; gero ehotzera eramaten genuen, irina egiteko, Lekunberrin errotaria bazen eta. Lehen denetatik ereiten zen.





Urtebetetze eguna familiarekin eta Larraungo beste herritar batzuekin ospatu zuen Pakok.
Arg: Mary Fe Etxarri

*“Garia ere landatzen genuen;
gero ehotzera eramaten
genuen, irina egiteko,
Lekunberrin erroztaria
bazen eta.
Lehen denetatik ereiten zen”*

Gaztetan, non hasi zinen lanean? Zer egiten zenuen?

Mendira joaten nintzen. Lantegian lan egiten nuen. Nagusiak baziren, mendiak hartzen zituztenak, eta harea botatzen gintuzten. Haientzat aritzen ginen lanean... jorjala eskaintzen ziguten, eta peoiak biltzen zituzten mendira botatzeko. Peoiak mendira bota, eta kamioiak joaten ziren zura eramateko. Estimazioa zuen zurak orduan, baina orain batere ez dauka.

Arruitz inguruko mendietara joaten zineten zura ateratzera?

Arruitz inguruan, bailara honetan. Gipuzkoan ere aritu naiz zurarekin lanean, e.

Bai? Noiz joan zinen Gipuzkoara?

Ez dakit, kar-kar! 24 urterekin-edo. Han ere egurretan aritu ginen. Beste batzuk, berriz, etxean lanik ez zutenak, Frantziara joaten ziren hemendik, maiatzean edo apirilean. Han negua sartu, eta gero buelta, poltsa beteta! Jose anaia adibidez Araban aritu zen denbora askoan lanean.

Zer egin zenuen zurarekin aritu eta gero?

Gero soldadu joan nintzen Gasteizera. Hara tokatu ginen; Larraungo bi bakarrik ginen, eta beste Imozko bat. Han gaizki... Gerran ibilitakoak eta beste lau-bost kinta gero, gu baginen 42-43, eta 45ekoak ere bai. Eta gero gerran ibilitakoak ere mobilizatu zituzten hara.

Zer egiten zenuen soldaduskan?

Eskalatzaile ibili nintzen ni, eskalatzaile-eskiatzaile konpainian. Ibili azkar egiten genuen! Gustura ibiltzen nintzen ni mendian eskalatzaile. Inork ez zuen ibili nahi izaten!

*“Gustura ibiltzen nintzen ni mendian eskalatzaile.
Inork ez zuen ibili nahi izaten!”*

Zer gertatu zitzaizuen makiekin?

Irunberrin beste konpainia bat zegoen. Gosaltzeko elkarrekin biltzea han tokatu. Irunberriko arroilan kable bat zegoen, eta esan ziguten kable hori pasatzen zuenak mosketoia gerrian jarrita hiru eguneko baimena izango zuela larunbatetik astelehenera. Eta nik pasako nuela esan nuen, eta pasatu nuen!

Hona etorri ginen, Lekunberriko festak ziren, eta Lekunberrin nintzela Iruñetik abisua jaso genuen, han segituan presentatzeko. Iruñera joan ginen; orduan, 30 ginen sekzioan, eta autoan hartu ziguten eta Gazteluberrira eraman gintuzten. Ailegatu baino lehenago tiro hotsak aditzen genituen, eta elkarri esaten genion: “Leku ederrera heldu gaituk!”. Ailegatu ginen hara, eta esan ziguten bat hilda zegoela han goran, baina makiak borda barruan zeudela, aseguratuta, eta maki horiek bordako ataritik aterata ez zutela eskaporik. Bordara arrimatzen hasi gara, eta zer egin zuten haiek? Borda zulatu, eta atzetik atera! Kasko batean jarri ziren, eta konpainiako bat zegoen bizkarretik bala bat pasatuta, eta niri tokatu hura jaistea! Beste soldadu batek eta biok beso banatik hartu dugu, eta xenda bat zegoen, bordatik herrira zihoan xenda txar bat. Tiro segida bat bota ziguten, eta Obanosko harri bularra alde alde pasatu zioten. Bestea joan zen, eta ni herrira jaitsi nintzen harekin, eta mutil hura gero ez nuen ikusi, ez dakit zer egin zuen. Behin hara joan ginen eta esan ziguten hilda zela...

Zein ziren makiak?

Makiak hona etortzen ziren pentsatzen zutelako gerra irabazita zeukatela, eta gero Frantziara pasatu nahi zuten, eta mendian ibiltzen ziren. Haiek ere gerratik alde egin nahi zuten...



Arruizko inauteriak. Arg: Mary Fe Etxarri Azpiroz

Familian denak zineten kirolariak...

Joakin ez!

Eta Juan Cruz Txikito?

Juan Cruz korrikalaria zen; aizkoran ere ibiltzen zen...

Apustu batzuegatik egin zen famatu, ezta?

Bai, apustu asko egiten ziren lehen. Etxarrin ere bazen lasterkari bat! Javier izena zuen. Hark ere berueta batekin jokatzeko zuen, Anizetorekin.

Herrien artean?

Bai, asko. Poltsa batean sartu eta bestean atera, eta hola ibiltzen zen jendea! Dirua jokatzeko zen, horixe baietz! Askok ez, inork ez zuen eta... Orain ez dago lehenagoko konturik!

Senideetatik gelditzen zen anaia bakarra zara, eta 100 urte bete dituzu... nola, gainera! Gustura bizi zara?

90 urterekin etorri nintzen Gerendiango zahar etxera; hamar urte daramatzat hemen. Ordura arte etxean egoten nintzen, bakarrik. Gustura etorri nintzen, baina orain aspertu egiten naiz... lehen lanak egiten nituen, baina orain platera ere ez dut ikusten mahai gainean. Itsu geratu nintzen orain dela urtebete. Begi bat galduta neukan ja, lanean galduta nuen, sasiak moztzen. Zaila da itsua izatea, baina ez aditza ere ez da ederra! Hori behintzat badaukat!

“Peoiak mendira bota, eta kamioiak joaten ziren zura eramateko. Estimazioa zuen zurak orduan, baina orain batere ez dauka”

Zer egiten zenuen lehen zahar etxean?

Lanak egiten nituen; azken urteotan baratzean ere aritzen nintzen, konposta egiten nuen... Paseatu ere egiten nintzen, eta baserritako ongarririk ekartzen nuen konposta egiteko.

Abenduaren 13an, zure urtebetetze egunean, bisita berezia izan zenuen, ezta?

Bai, alderdi hartako bat ere bazen, ibarreko alkatea! Mikel Uharte,

Gastesikoa. Herriko Joxe Mari Astiz ere izan zen, eta familiako batzuk.

Denak zu zorientzera. Ez zara kexatuko!

Ez, ez! Kar-kar. Etorri ziren, eta zer egin behar nuen, ba, bidali? Kar-kar. Gosalduta egin genuen, gazta, txistorra, ardoa...

Zer egin behar da 100 urtera hain ongi ailegatzeko?

Ez dago sekreturik; azkar ibili, besterik ez! Bizio handirik ez ez nuen; ez erre, ez edan... asko ibili. Eltzea behin bakarrik egosi izan nuen. Bete haragia, urdaia, arrautza... jaten nituen. Zartaginekoa jaten nuen beti. Hemen ematen dutena jan behar!



Jose, Manuela eta Pako Azpirotz anai-arrebak. Arg: Mary Fe Etxarri Azpiroz

Hurrengoa:

Iñaki Elizalde (Betelu)



**Maddi Sotil Buldain
(Betelu)**

maite ditut maite gure bazterrak

Betelu -Limite-Intza

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 8,5 km
Desnibela: +360m
Zailtasuna: erraza



Zergatik aukeratu dut?

Oso gutxitan egiten dudan ibilbidea da, baina oso polita da. Lehendabiziko aldiz alaba motxilan neramala egin nuen familian, eta horregatik da niretzat berezia. Etxetik atera eta ibilbide erraza da. Gainera, Malloen bista aurrean edukitzea benetan zoragarria da.

Bidea:

- 1 Beteluko plazatik hasi eta Intzako bidegurutzeta hartu behar da, lehendabiziko kurban ezkererantz. Hor dugu ibilbideko aldaparik handiena. Aldapa igo zementuzko pistari jarraituz eta gero nahiko zelaia da. Beteluko herria gurutzatzen da.
- 2 Herria gurutzatu ondoren pare bat lekutan pista banatu egiten da; beraz, momentu horietan adi egon behar da eta bide zuzena hartu. Argazki honetan aurrera jarraitu, hau da, ezkerreko pistatik.
- 3 Aurrerago, momentu batean 3 bide ikusiko ditugu eta hemen erdikorantz joango gara. Nahiko zelaia dela ematen du, baina erabat gorantz goaz.
- 4 Azkenik, bidea estutuz doa eta eskuineko bidea hartuko dugu. Intzara eramaten gaitu. Ezkerreko bidea hartuz gero, Errazkinera. Intzako noranzkoa hartuta, bidean agertutako marka laranja-zuriei jarraituko diegu.
- 5 Aldapa beheran goazela basotik atera eta Malloak izango ditugu aurrean. Bertan seinale bat ikusiko dugu eta Intza herria markatuko du. Beheraka jarraitu seinalearen noranzkoan.
- 6 Beheraka goazela lehendabiziko etxearekin topatuko gara, eta hortik ezkererantz. Beheko pista hartu eta Intzako elizan agertuko gara. Hortik aurrera errepidez jarraitu eta 2 km-ra Beteluko plazara iritsiko gara.



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Zer esan edo nola esan?

Normalean asko kostatzen zaigu beste pertsonari ez zaizkigun gauzak esatea, batez ere gure maiteei: lagunak, bikotekideak, familia... Hala ere, ez digu batere onik egiten dena barruan gordetzeak eta liskarrik ez izateagatik elkarrizketa deserosoak saihestekak.

Ikusiko dugu nola esan dezakegun barruan duguna modurik egokienean. Horretarako, komunikazio-estiloak bereizten hasiko gara:

Komunikazio-estilo pasibotik hasiko gara. Komunikazio mota honetan, pertsonak beste pertsonaren emozioak, iritziak eta beharrak bakarrik hartzen ditu kontuan, ez norberarenak. Balizko erreakzioen beldurretik hitz eginez. Adibidez: gaur arratsaldean egiteko plan bati buruz galdetzen diotenean, komunikazio-estilo hori komunikatzen duen pertsonak hau erantzungo luke: «Berdin zait, zuk nahi duzuna egiten dugu».

Komunikazio-estilo erasokorrek norberaren emozioak, iritziak eta beharrak bakarrik hartzen ditu kontuan, solaskidearenak kontuan hartu gabe; beraz, mingarria izan daiteke, baita formatan ere. Adibidez: ardura zaitetz afaria egiteaz, nik egiteko gauzak

baititut, eta zuri ez zaizu axola. Adibidean, pertsonak ziurtzat jotzen du besteak nahi duena egingo duela, une horretan zer egiten ari den edo afaria egin nahi duen kontuan hartu gabe.

Estilo pasibo-erasokorra, hain zuzen ere, bi estiloen nahasketa da. Barruan duen guztia isiltzea, gehiago jasan arte, eta emozioak, iritziak edo beharrak modu desegokian edo zaurigarrian adieraztea. Adibidea: besteek nahi dutena egiten du beti, eta ez du adierazten zer egin nahiko lukeen. Denbora luzez horrela funtzionatu ondoren, bat-batean lagunekin haserretzen da, besteek nahi dutena egiten duela eta inoiz ez duela kontuan hartzen aurpegitratuz.

Eta azkenik, **komunikazio-estilo asertiboa**. Hori litzateke komunikazio-estilo egokiarena, norberaren emozioak, iritziak eta beharrak adierazten saiatzen delako, beste pertsonarenak ere kontuan hartuta.



Erraza dirudi, ezta?

Oinarrizko arau pare batekin goaz,
horrek funtziona dezan:

1 . Beti lehenengo pertsonan hitz egitea. Zure emozioetan zentratu, eta ez beste pertsonak egindako ekintzetan. Izan ere, norberaren sentimenduak eztabaida ezin dira, baina beste pertsonak egiten duena zalantzan jartzerik badago. Adibidez: "Deseroso sentitzen naiz X egiten duzunean".

2 . Hitz debekatuak daude: **INOIZ EZ, BETI, DENA ETA EZER EZ.**

3 . Suposatu baino lehen galdetu: "Iruditzen zait beste pertsona batzuek eteten zaituztenean gogaitu egiten zaituela?".

Zenbait pista:

- Eskerak egiteko: nik nahi dut, nik behar dut, nik nahiko nuke (gogoratu beste pertsonak EZ esan dezakeela, nahiz eta gauzak modu egokian eskatu).

- Iritzi bat adierazteko: pentsatzen dut, hautematen dut, iruditzen zait (argi gera dadila zure pertzepzioa dela, ez egia absolutua).

**Zer iruditzen zaizue 2023rako
erronka asertibotasunetik
komunikatzea bada?**



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



► MILA MENDIZALE INGURU ELKARTU ZIREN ARALARREN 55. MENDIGOIZALEEN EGUN HANDIAN

Abenduaren 18an ospatu zuten aurten Mendigoizaleen Egun Handia Aralarko San Migelen, eta bertan izan zen Joxe Mari Zabaleta. Egun horretan bizi eta ikusitakoa kontatu digu. Goiz-goizetik igo ziren mendizaleak San Migelera, Uharte Arakil, Madotz, Ata, Iribas edo Lekunberritik abiatuta. Hasieran, behe lainoaz inguratutik zegoen santutegia. Hamar autobus igo ziren, eta hainbat auto; 800-1.000 mendizale bildu ziren guztira. 11:00etan egin zuten hildako mendizaleen aldeko meza; ondoren, hamaiketakoa, trikiti eta akordeoiak girotuta. Tertulia, aspaldiko lagunen agurrak, dantza eta umorea ez ziren falta. Hainbat elkartetako kideak izan ziren, baita Ttutturrekoak ere.



► ZAZPI LAGUN SARITU DITUZTE MIKROIPUIN LEHIAKETAN; ZORIONAK DENEI!

Larraungo Euskara Batzordeak eta Araizko Euskaraz Bizi taldeak Mikroipuin Lehiaketa antolatu zuten, eta abenduan banatu dituzte sariak. Araitzen, Araitz Ezeiza eta Jule Salvatierra izan ziren irabazleak, eta materialean gastatzeko 40 euroko bonu bana jaso zuten. Larraunen, berriz, hauek izan ziren saridunak: Iradi Eraso, Haizea Apezetxea, Luana Becares eta Lorea Navascues, eta aurrekoen sari bera jaso zuten. Helduen kategoriari dagokionez, Irati Morenok eskuratu zuen 100 euroko bonua. Larraungo sari banaketan, gainera, Aralar Musika Eskolako ikasleek ikuskizun bikaina eman zuten. Zorionak parte hartzaile guztiei, eta bereziki irabazleei!

AIZAK! AIZAN! HITANOZ IKASI NAHI?

Hitano ikastaroa emango dute doan Larraungo AEKn. Zortzi saio izanen dira guztira, eta urtarriletik martxora izanen dira eskolak. Interesatuak zehaztuko dute ordutegia. Urtarrilaren 13ra arteko epea duzu izena emateko, 659 841 687 telefono zenbakira deituta edo larraun@aek.eus helbidera idatzita.



2023 MAILLOPE




Marjijo Arroki



Hodei Gollkoetxea



Asier Arsuaga



Itzi Zabalza

Itzaki Montes



2023 MAILLOPE



Alvaro Barber



Yolanda Juanena



Naiara Intxaurreondo





Astier Arsuaga



Lorea Azpirotz

Uztaila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
						31

Abuztua

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						6
	1	2	3	4	5	13
7	8	9	10	11	12	20
14	15	16	17	18	19	27
21	22	23	24	25	26	
28	29	30	31			

Iraila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						3
				1	2	10
4	5	6	7	8	9	17
11	12	13	14	15	16	24
18	19	20	21	22	23	
25	26	27	28	29	30	

Urtia

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						1
					7	8
2	3	4	5	6	14	15
9	10	11	12	13	20	22
16	17	18	19	20	21	29
23	24	25	26	27	28	
						31

Azaroa

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						5
		1	2	3	4	12
6	7	8	9	10	11	19
13	14	15	16	17	18	26
20	21	22	23	24	25	
27	28	29	30			

Abendua

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
						3
				1	2	10
				8	9	17
4	5	6	7	14	15	24
11	12	13	14	21	22	31
18	19	20	21	28	29	
25	26	27	28	30		



Adur Cobos



Ilbeltza

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Apirila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

Otsaila

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
6	7	1	2	3	4	5
13	14	8	9	10	11	12
20	21	15	16	17	18	19
27	28	22	23	24	25	26

Maiatza

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

Martxoa

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
6	7	1	2	3	4	5
13	14	8	9	10	11	12
20	21	15	16	17	18	19
27	28	22	23	24	25	26
		29	30	31		

Ekaina

AL	AR	AZ	OG	OL	LR	IG
5	6	7	1	2	3	4
12	13	8	9	10	11	18
19	20	14	15	16	17	25
26	27	21	22	23	24	
		28	29	30		



ALDATZ KONTRABANDOKO TABAKOAREKIN LOTUTAKO ALBISTEEN TITULARRETAN

Kontrabandoko tabakoa ekoizten zuen sare bat desegin dute Hego Euskal Herrian, eta Aldazko pabiloi batean atzeman dute fabriketako bat, herrigunetik 500 metro eskasera. Han, zazpi ukrainarrek lan egiten zuten, "ia esklabotza egoeran": pabiloian bizi ziren, eta hamar eta hamabi ordu arteko lan jardunaldiak egiten zituzten. Ez ziren pabiloitik sekula irteten, eta beste pertsona batek egiten zizkien erosketak. Operazioan hamasei lagun atxilotu zituzten; horietatik hamar Aldatzen. Denera 4,5 milioi zigarro pakete eta 31 tona tabako orri konfiskatu dituzte, baita zigarroak eta paketeak ekoizteko makinak ere. Ia 80 milioi euroko irabaziak lortu ditu sareak.



ENERGIA KOMUNITATE BATEN ALDEKO URRATSAK LEKUNBERRIN

Lekunberriko Udalak energia komunitate baten parte izateko aukera eman die herritarrei. CEL Toda Navarra izena du komunitateak, eta plaka fotovoltaikoak udal eraikinen teilatuan instalatzea da asmoa, hala, komunitateak zero kilometroko energia berriztagarria sortzeko. Izena emateko, www.celtodanavarra.es helbidean dagoen inprimakia bete behar da. **Informazio gehiagorako**, jo udalaren webgunera edota deitu 946 856 312 telefono zenbakira. z

SEXOLOGIAZ, FEMINISMOAZ ETA TANTRAZ PRINTZAN ILBELTZAREN 21EAN

Printzan sexologia, feminismoa eta tantra tailer bat antolatu dute 21erako. 10:30etik 13:30era izanena da, eta Pili Miqueok eta Cristina Gonzalezek gidatuko dute. Modu parte hartzailean, aztertuko dute maitasunaren eta sexualitatearen zein eredu diren patriarkatuarenak eta kapitalismoarenak, eta horietatik hazi, gozatu eta maita daitekeen hausnartuko dute, besteak beste.



● ● Adur Cobos

“Edozein tokitan aurkitu daitezke fotografiatzeko gauza politak”



Adur Cobos atalluarrak zaletasun asko ditu, eta argazkilaritza da horietako bat. ‘Araizko koloreak’ erakusketa ondu berri du, Araitz-Beteluko Kulturaldiaren barruan, eta naturako elementuak ikus daitezke hamaika argazki horietan. Aurrera begira ere bide horretan segitu nahiko luke.

20

Aurrenekoz jarri duzu zure argazki erakusketa bat. Nolatan animatu zara pausoa ematera?

Argazki kamera bat daukat, eta argazki asko egiten ditut. Aitari galdetu zioten erakusketa bat jarriko ote nuen Kulturaldiaren barruan, nik nahi nuenari buruzkoa, eta hau atera da.

Natura ikusten da batez ere argazkietan: animaliak, loreak... Naturarekin lotutako elementuak fotografiatzeko ohitura daukazu normalean?

Normalean, aurkitzen dudanari ateratzen dizkiot argazkiak, ez bakarrik naturari, baita pertsoneri ere, adibidez. Bidaletan-eta ere pertsonak fotografiatu ohi ditut.

Nork irakatsi dizu argazkiak ateratzen?

Gehienbat, neure kabuz ikasi dut, nik bakarrik. Horrez gain, ikastaro bat ere egin nuen Beasainen, eta han irakatsi zidaten kamera erabiltzen.

11 argazkiz osatu duzu erakusketa. Zein duzu gustukoena edo zein da bereziarena zuretzat?

Niretzat, denak dira bereziak, baina burbuila agertzen den argazkia askok aipatu didate. Burbuilaren islan nire etxea eta neure burua ikusten dira, kamera eskuetan dudala. Arrebarekin nengoen jolasean burbuilak egiten, eta hortxe geratu zen bat, eta, orduan, kamera hartu eta argazkia atera nion. Lorearena ere asko gustatzen zait; hondoko kolore beltza lortzeko, kamerako botoiak ukitzen aritzen naiz, probatzen, emaitza gustatzen zaidan arte.

Eta zein izan da zailena ateratzen?

Txoriak harrapatzea zailagoa izaten da, baina gehienak etxean bertan nagoela ikusi ditut; kamera hartu, etxetik atera, eta harrapatu. Halere, azken finean, guztiaren batura ongi ateratzea izaten da zailena, kamera kontrolatzea. Izan ere, agian argazki bat atera eta hori ongi egongo da, baina beste bat ongi ateratzeko gauzak aldatu egin behar dira.

Jendeak zer esan dizu erakusketagatik?

Oso polita dela, eta zoriondu ere egin naute.

Kanpoan aurkitu daitezkeen animaliak agertzen dira, animalia basatiak, baina zuk ere badituzu maskota batzuk, ezta?

Oilo batzuk ditut, hiru ahate eta arrainak, eta erleak ere izan ditut, baina orain ez. Eztia egiten nuen lehen, baina aurtan denak hil zaizkigu, erle asiarragatik. Ahateak

Gorritik eman zizkidan; oiloei buruz hasi ginen hizketan, eta hala oparitu zizkidan. Oiloak, berriz, txikitatik eduki nahi izan ditut, asko gustatzen zaizkidalako. Laurekin hasi nintzen, eta hamalau ditut orain. Txitak ere jaiotzen dira etxean, baina oiloenak bakarrik oraindik, ahateak gazteak baitira, baina horren esperoan gaude!

Argazkilaritza, animaliak... musika ere bai?

Saxofoia jotzen dut, bai. Txikitatik hasi nintzen musika ikasten, eta 6 urterekin heldu nion saxofoiari. Oso gustura nabil.

Beste proiektu bat aurkezteko prest egongo zinateke?

Bai, baina denbora gehiagorekin prestatu nahiko nuke, hau nahiko azkar izan baita. Nire, nire lagun batzuen eta ikastaroko irakasleen artean aukeratu genituen erakusketa honetarako argazkiak, eta azken egunean muntatu genuen dena, argiekin-eta. Edozein gairi buruzko argazkiak jarriko nituzke, ez daukat gai jakirik buruan.

Araizko txoko bat aukeratu beharko bazenu argazkiak ateratzeko, zein aukeratuko zenuke?

Edozein. Azkenean, edozein tokitan aurkitu daitezke fotografiatzeko gauza politak. Pazientzia asko behar da, dena ez baita ateratzen espero bezala, eta, animalien kasuan, segundo gutxi dituzu argazkia ateratzeko. Argazki txar asko atera behar dira argazki on bat ateratzeko.

Kulturaldi anitza eta jendetsua

Araitz-Betelun askotariko kultur ekitaldiak egin zituzten azaroaren hondarretik abenduaren 10era, eta antolatzaileak oso pozik daude egitarauak izan duen harrerarekin. Haurrek, gazteek nahiz helduek hartu dute parte guztietan. Hona hemen Kulturaldiko argazki batzuk.



MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Zer da biluztasuna?

Zer da zuretzako biluzik joatea? Kulerotan edo galtzontzilotan egotea biluzik egotea al da? Lasai, gaurko zutabetxoan ez gara eta lizun jarriko. Biluztasunaren inguruan hausnartzeko beta hartuko dut, besterik ez.

Biluztasunaren inguruan pentsatu al duzu inoiz? Alu-aldean hosto bat jartzen duen eta titiak erdi estaltzeko lepoko batzuk erabiltzen dituen norbait ikusten baduzu, zer? Emakume hori biluzik doala esanen zenuke?

Agian hasieran behin baino gehiagotan begiratuko genioke: guretzako bai, biluzik doa! Are gehiago, guk horrela jantzi beharko bagenu lotsa sentituko genuke. Berak, ordea, ez du uste biluzik doanik. Berak bere gorputza txukundu du, lepokoak jarri ditu, hosto konkretu bat jarri du, aurpegia margotu du. Bixitak jasotzeko prestatu da edo ezkontza batera joateko, edo... zer dakit nik.

Biluztasuna eraikuntza kultural eta sozial bat da. Ez doaz biluzik. Euren gorputza apaindu dute, guk arroparekin egin bezala.

Erlatibismo, kasu honetan, kulturala deritzo aurrean aurrean praktikara eramane beharreko joerari. Hau da, mendebaldeko barne-logika europar eta etnozentrikoa baztertu gainontzeko kulturak ulertzeko. Hitz gutxitan, alegia: kultura guztiak ezin ditugu gure eskematik abiatuta ulertu. Ez ginateke ezta saiateru ere egin behar.

Kasu honetan, Ekuadorko Amazonas oihanean bizi diren Waorani emakumez ari naiz, baina munduan badira gu ez bezala janzten diren beste hamaika herri.



“Ze polita den bi lagun hika hizketan aditzea”

Araizko zortzi emakume hitanoz aritzeko elkartzen dira ostiraletan, Arribeko San Migel tabernan. Iaz hasi ziren AEKren Mintzakide programaren barruan hika hitz egiten ikasten, eta Izaskun Ezkurdia uztegiarra eta Mertxe Errasti zestoarra dira irakasleak. Ikasteaz gain, elkarrekin egoteko aitzakia bat ere badela nabarmendu dute, lagun giro ederra sortu baitute.

22

Ostiral iluntzea, 19:00ak inguru. Arribeko San Migel tabernako mahai batean eserita daude bost emakume. Trago bat hartzen ari dira, hitz eta pitz, astean zehar gertatu zaizkien elkarri kontatzen. Baina badute berezitasun bat, edo, hobeki esanda, hain ohikoa ez den zeozer: hitanoz ari dira hizketan, ez zuka. Izan ere, hika nola aritu ikasten ari dira iaztik. “Oraindik ez dinagu ikasi; ikasten ari gaitun! Poliki-poliki”, argitu du Mari Tere Mugertzak. Mari Terez gain, Itziar Eguren, Ainhoa Iriarte, Kontxi Arraztio, Kizkitza Mujika eta Mari Nieves Torrejon dira ostiraleko hitzordu horretara joan ohi direnak, eta bi irakasle dituzte bidelagun: Izaskun Ezkurdia eta Mertxe Errasti.

AEKren Mintzakide programaren barruan ari dira hitanoan trebatzen, eta begi-bistakoa da zer gustura aritzen diren, denek nabarmendu baitute gauza bera hasiera-hasieratik: ederki pasatzen dutela, eta giro ezin hobean ari direla ikasten, gustura eta lasai.

Uztegiko Izaskun Ezkurdiak txikitatik aditu du hitanoa etxean, eta gaur egun ere eusten dio ohitura horri. Ahizparekin egiten du hika bereziki, eta harekin ateratzen zaio naturalen. Semeei, berriz, zuka egiten die, baita senarrari ere. Eta semeek hari ere zuka egiten diotela esan du, baina haien artean, berriz, hika aritzen direla hizketan. Ezkurdiari ailegatu

zitzea hitanoa ikasteko taldea sortzeko proposamena. Azaldu du Larraungo AEK-koek egin ziotela eskaera: “Esan zidaten Lekunberrin euskaraz aritzeko talde bat sortu zutela, eta Araitzen euskaraz han baino gehiago egiten zenez, ez zutela horren beharrik ikusten, baina bai, ordea, hitanoa indartzekoa, oso gutxi hitz egiten zelako. Irakasteko prest ote nengoen galdetu zidaten, eta nik baietz erantzun nien, baina asko ere ez nekiela, senideekin hitz egiten nuena besterik ez, ohitura hori banuela”.

Gaintzan bizi da gaur egun Ezkurdia, eta Uztegin eta Gaintzan hitz egiten den hitanoa irakasten die ikasleei,



Arribeko San Migel tabernan elkartzen dira. Arg: Labrit

“Lizartatik hona hitz asko aldatu egiten dira hitanoan, eta Larraunera ere bai”

Izaskun Ezkurdia

hori baita dakiena eta erabiltzen duena. Herriaren arabera hitz egiteko era aldatu egiten dela adierazi du, baita Araiztik Larraunera ere: “Lizartatik hona ere hitz asko aldatu egiten dira, eta Larraunera ere bai. Araizko behe herrian, halere, oso gutxi hitz egiten da, baina goi herrian oraindik ere eusten diote etxe batzuetan, eta aldea ere izango da behean eta goian hitz egiteko moduan”. Gorago dauden herriei esaten diete Araitzen goi herri, hala nola Gaintzari eta Azkarateri, eta gainerakoak, berriz, behe herri dira. Gainera, uztegiarrak esan duenez, etxeokandrea gipuzkoarra bada, adibidez, nabaritzen da hika egiteko beste modu bat dutela etxe horretan, eta hori Azkarateko etxe batzuetan gertatzen da; ondorioz, Bedaioko eta Amezketa aldeko hitanoa erabiltzen dute.

Ezkurdiak, baina, bertakoari eusten dio, eta hemengo hitzak mantentzen saiatzen dela nabarmendu du. Arraztiok gehitu du hori oso garrantzitsua dela beretzat, balio handia ematen diola Araizko berezko hizkera aditu ahal izateari, eta bertakoa ikasi nahi dutela beraiek: “Izaskun euskaldun peto-petoa da, zuka nahiz hitanoz hizketan, eta oso ongi mantentzen du bertako euskalkia. Horregatik, esango nuke guretzat egon daitekeen irakaslerik hoberenarikoa dela”.



“Izaskun euskaldun peto-petoa da, zuka nahiz hitanoz hizketan, eta oso ongi mantentzen du bertako euskalkia”

Kontxi Arraztiok

Jakin-minak eta ikasteko gogoak bultzatu zituen talde horretan parte hartzera. Iriarte, esaterako, aurretik ere aritua zen Mintzakide

programaren barruan Beteluko talde batekin euskara praktikatzeko, eta gustura ibili zenez, honetan ere aritzea erabaki zuen. Arraztiok, berriz, bere euskara aberasteko grinak eraman zuen gainerakoekin elkartzera. Mugertzak esan du hitanoa ikasteko gogoak zuela, aurretik asko ez zekielako eta ikasi egin nahi zuelako. Egurenen kasuan, bestalde, Donostiakoa da izatez, eta pixkanaka ari da Araizko hitzak ikasten eta erabiltzen.

“Mutilen bat behar dinagu taldean toka aritzeko”

Ainhoa Iriarte

Noiz eta norekin hika?

Ez da kasualitatea Ezkurdiak bereziki ahizparekin egitea hika. Are, azaldu du ezin dela edonorekin hitz egin hitanoz, eta iruditzen zaio molde horri eutsi egin beharko litzaiokeela: “Amarekin hika hitz egin nahi baduzue ikasten ari zaretelako, ongi, baina etxera joan eta amari hika egitea besterik gabe, ez”. Lagunen, anai-arreben nahiz lehengusuen artean egiten da hika, konfiantza handiko jendearekin, baina gurasoekin, amona-aitonekin, izeba-osabekin eta gainerakoekin zuka egin behar dela azpimarratu du. Bikoteen kasuan, bikotekidearekin hitanoz egiten zen, baina ezkondu ondoren zuka egin behar izaten zuten, eta hala egiten dute oraindik ere askok.

Noka eta toka bereizten dira hitanoan: noka emakume bati hika hitz egiteko modua da, eta toka, berriz, gizonezko bati. Animaliei, aldiz, beti egiten zaie noka, arra nahiz emea izan. Noka aritzen dira beti emakume hauek Arriben, ez baitute gizonezkorik taldean. “Mutilen bat behar dinagu!”, esan du Iriartek, uste baitute taldea asko aberastuko litzatekeela mutilek ere parte hartuko balute, eta, gainera, toka praktikatzeko modua emango liekeela.



Mari Tere Mugertza, Izaskun Ezkurdia, Itziar Eguren, Ainhoa Iriarte eta Kontxi Arraztio. Arg: Labrit

Ohiturak aldatzea, erronka

Taldetik kanpo ere hika hitz egin nahiko lukete, eta batzuetan saiatzen dira, baina aitortu dute kosta egiten zaiela: “Dendara joatean, hika egiten diot Mari Tereri hasieran”, kontatu du Kontxik. “Bai, baina gero zuka hasten gara!”, erantzun du Mari Terek. Egurenek, berriz, esan du ez zaiola ateratzen, eta Iriarte ere ez da gai erabat hika aritzeko. Argi daukate zergatia: oso zaila da ohiturak aldatzea, eta esfortzu bat eskatzen du zuka utzi eta gehienetan hika egiteak.

Dena den, uste dute gehiago ikastea eta ikasitakoa praktikan jartzea dela gakoa, eta ez daukate amore emateko asmorik, hitanoa lantzeaz gain, harreman eta momentu

“Elkarri laguntzen saiatzen gaitun, eta denon artean irakasten”

Itziar Eguren

ederrak sortu baitituzte ostiraletako topaketetan, lagunarteko giroan. Herritar guztiak animatu dituzte mahaiaren bueltan haiekin esertzera, eta nabarmendu dute elkarri laguntzen diotela erabat: “Elkarri laguntzen saiatzen gaitun, eta denon artean irakasten. Ez din inporta gaizki edo ongi egiteak, egitea dun kontua”, esan du Egurenek; “denak dira ongi etorriak”. Ezkurdiarekin oso eskertuta daude ikasleak, eta Ezkurdiari ere antzematen zaio poza: “Ze polita den bi lagun hika hizketan aditzea”.

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com



Ilbeltzaren 15ean egingen dute Araitz-Beteluko Krosa

Aurten, bai: XVI. Araitz-Beteluko Krosak ohiko itxura izango du, eta ilbeltzaren 15ean irtengo dira korrikalariak Beteluko plazatik. Antolatzaileek dena prest zuten iaz, baina, azkenean, ezin izan zuten egin, pandemiak eragindako egoera dela eta. Hala ere, hainbat herritarrek krosaren ibilbidea egitea erabaki zuten, korrika, ohiturari eusteko eta herrian giro polita sortzeko. Ohi bezala, 12:00etan hasiko da lasterketa, eta 7,7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte hartzaileek. Emakumezkoetan nahiz gizonezkoetan sailkatzen diren lehen hirurentzat egongo dira sariak: 120, 80 eta 60 euro. Haraneko korrikalariarentzat ere sari bereziak izango dira: 50, 40 eta 30 euro. Lehenago, baina, 10:30ean, haurren lasterketa izango da. Gaztetxoek egunean bertan eman ahalko dute izena, Beteluko eskolan (9:30etik 10:00etara), eta helduek ere bai, baina baita lehenago ere, www.kronoak.com atarian sartuta.

Ttutturre elkartekoek Baztango Itzulia egingen dute heldu diren hilabeteetan, zortzi etapatan

Urtea ibilbide eder batekin hasiko du Ttutturre kirol elkarteak. Izan ere, datozen hilabeteetan Baztan ibarrari buelta emanen diote, eta han dauden tontorrak igoko. Zortzi etapa egingen dituzte. Ilbeltzaren 29an Bertizetik abiatuko dira, eta, Aiazkolegi eta Azkua ezagutu ondoren, Etxalarren bukatuko dute. Han bazkaldu, eta itzuli egingo dira. Irteerak hileko azken igandean izanen dira beti.

Bestalde, 2023an Nafarroako Mendi Federazioan izena emateko epea zabalik dago. Prezioak kategoriaren arabera dira, eta ordainketa transferentzia bidez egin behar da. Garrantzitsua da transferentzia egitean kirol elkarteari jakinaraztea eta ordainagiria bidaltzea (ttutturrekirolelkarkea@gmail.com edo Lanbroa liburu dendan dokumentazioa utzi). Informazio gehiagorako, deitu 680 65218 telefono zenbakira edo idatzi helbide horretara.

536 izan da Larraungo Pilota Elkartearen zenbaki sariduna

Aurten ere, Olentzerok atera zuen Larraungo Pilota Elkarteari bertako komertzioen produktuekin osatutako saskiaren zenbaki sariduna: 536 zenbakia duenak irabazi du saskia, eta Ander Arbilla zuen zenbaki horixe. Beraz, zorionak, Ander! Disfrutatuta sariaz!



HORRA MARI DOMINGI, HORRA GURE OLENTZERO!

Gabon gauean etxeetara joan aurretik, egunez hainbat bisita egin zituzten Olentzerok eta Mari Domingik eskualdean. Abenduaren 22an, Araxes eta Ibarberri eskoletara joan ziren goizean, zakuak opariz beteta. Araitz eta Beteluko ikasleek kaleak kantuz alaitu zituzten aurrena, eta ondoren egin zieten harrera eskolan bertan, dantza eta kantu artean. Ibarberrikoek, berriz, koreografia ederrak dantzatu zituzten kiroldegian. Abenduaren 24an, Eguberri bezperan, larraundarrak Madotzen, Oderitzen, Iribasen, Baraibarren eta Lekunberrin aritu ziren kantuan, baita beteluek ere herrian bertan. Araitzen, halere, aspaldiko ohiturari eusten diote, eta biharamunean joaten dira kantatzera: Allandoetan laranjak jasotzen dituzte etxez etxe. Eguberri on denoi!

26



Olentzero Betelun



Olentzero Betelun



Beteluko eskola



Sorgintxo



Beteluko eskola



Ibarberri eskola



Ibarberri eskola



Ibarberri eskola



Ibarberri eskola



Gaintza. Arg: Ainhoa Otermin



Allandoak Gaintzan. Arg: Agustin Saralegi



Larraunen kantuan. Arg: Larraungo Hazia



Larraunen kantuan. Arg: Larraungo Hazia



Olentzero Lekunberrin. Arg: Lekunberriko Udala



Olentzero Lekunberrin. Arg: Lekunberriko Udala



Allandoak

Badaude gauza batzuk Eguberrietatik gustatzen ez zaizkidanak: gehiegizko kontsumoa, dena ongi doanaren sentsazio gezurretako hori, apaingarri batzuen "horterismoa"... Aldiz, badaude atsegin ditudan gauzak ere, iruditzen pertsonon bihotzak pixka bat biguntzen direla. Ingurukoei desio onak luzatzeko garaia ere bada, familiari, herritarrei... Benetakotasun puntu batekin gertatzen dela iruditzen zait batzuetan; horrek hunkitzen nau.

Horren adibide dira Gaintzako Allandoak. Inguruko herri askotan bezala, haurrak, gurasoak eta herritarrak etxez etxe pasatzen gara Eguberri egunean, kantua eginez eta laranja, sagar, mandarina, goxokiak eta pintxo goxoak ere jasoz. Aitzakia ederra etxeetako jendea agurtzeko, urtean horrelako egun berezitan ikusten dugun jende horri besarkatuz eta musukatuz, herri sentsazioa handitzeko.

Agustinek ongi dion bezala, ederra da gainera banatzen den gauza nagusia laranjak izatea, eta ez dirua, sortzen den giroa "garbiagoa" dela iruditzen zait. Herri gisa mesede egiten digula uste dut gaintzatarroi, gure herriko paraje ederrean pertsonen barneetako paraje ederrak badaudela sentitzeko. Ohitura zahar honen zentzuak eta balioak argi berezia hartzen du hemen.

Ohitura zaharren zentzua berritzea garrantzitsua denez ere, aurten bertsoak egokitu ditugu Olentzeroren doinuarekin, hona hemen abestu genuena: Gaintzan Eguberriean, pozez gatozenak/ laranjak eskertzeko, ze kantu ozenak. /Elkartzen ikusirik hemen gauden denak, /urte berriarentzat, desio onenak! / Horra, horra, ze herri jatorra, horrenbeste urtetan zaindu den altxorra. / Giro ona mantendu zagu urte guztin, gustura bizitzeko gure Mallo azpin, gure Mallo azpin.

Urte berri on denoi!

Abian da Mendialdeko Behatoki Sozioekonomikoa

Mendialdeak abiatutako Aktibazio Plana helmugara iritsi da, eta hala osatu dute Mendialdeko Behatoki Sozioekonomikoa. Eskualdeko ekonomia indartzea dute xede, eta horretarako plan estrategikoak garatzea eta horiek aurrera eramatea. Larraungo, Beteluko eta Araizko udalentsat "interesgarria, positiboa eta garrantzitsua da" foro hau osatu izana. Heldu diren hiru urteetarako bide orria izanen da.

Azken urte hauetan Mendialdea eskualdeak ereindako haziak badu bere fruitua dagoeneko: Mendialdeko Behatoki Sozioekonomikoa eratu dute. Plana heldu diren hiru urteetan eskualdeko garapen ekonomikorako bide orria izanen da. Eskualdeko udalak, Cederna Garalur elkarteak eta beste eragile batzuk elkarlanean aritu dira, eskualdeko ekonomia aktibatzea helburu. Horixe izango baita behatoki horren funtzioa: Mendialdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Planaren gobernu, erabaki eta kontrol organo nagusia izatea. Prozesu parte hartzaile baten bidez heldu dira bukaerara: eskualdeko sektore ekonomiko ezberdinetako eragile

nagusiekin 35 elkarrizketa eta bederatzi lan saio baino gehiago egin dituzte.

2019. urtean, Mendialdea Elikadura egitasmoa jarri zuten martxan, eta horrek berak bultzatu zuen eskualdea garapen dinamiketara. Gero, Mimukai proiektua sortu zuten, eta orain ondu berri duten Aktibazio Plan horren aurretik emandako pauso horiek guztiak indartu eta bide beretik jarraitu nahi dute. Egitasmo guztiek izan dute eta dute oinarri bera: lurraldea. Eskualdea bera da garatu nahi dutena, eta, horregatik, lurraldeko eragileen inplikazioa bilatu dute prozesuan, hasiera-hasieratik, plana diseinatzen hasi zirenetik. Plana zehaztuta, horixe bera aurrera eramatea da ezarri beharreko mugarrria, eta, horretarako, ezinbestekotzat deritzote adostasunak bilatzea, hausnartzea, eta lanak eraginkortasunez funtzionatzea.

Eskualdeko udalek begi onez ikusten dute behatokia, eta uste dute tresna eraginkorra izanen dela etorkizunerako. Mikel Rekalde Beteluko alkatearen arabera, "partaideak publiko eta pribatuak

izateak errealitatearekin bat egiteko aukera hobea ematen du". Horrez gain, gehitu du Beteluko Udala datorren azpiegitura planari eta etxebizitzaren arlora begira dagoela batez ere, eta Hirigintza Planaren proiektua urte hasieran argitaratuko dela formalki, hala badagokio, edonork ekarpenak egiteko; dena den, esan du horrek ez duela kentzen beste gaiei inguruan ere interesa edukitzea.

"Partaideak publiko eta pribatuak izateak errealitatearekin bat egiteko aukera hobea ematen du"

Beteluko Udala

Araizko Udalak, halaber, elikadura eta energia burujabetzaren inguruko lanketak hasi ditu, eta espero dute behatokiak bultzada bat ematea bide horri. Gainera, uste dute elkanerako gako izanen dela, baita kohesioa indartzeko ere: "Garrantzitsua iruditzen zaigu Mendialdeko ekonomiari bultzada bat emateko, elkarlana sustatzeko eta eskualdeari indarra emateko".

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologoa
Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainetan
Mikroblading bekainetan

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK
.....
24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es



“Elikadura eta energia burujabetzaren lanketak hasi ditugun honetan, honek bultzada emango diola espero dugu”

Araizko Udala

Larraungo Udalak ere “positibotzat” jo du behatokia sortzea, eta elkarturik lan egiteak onurak ekarriko dituela deritzote: “Behatokia sortzea oso positibo ikusten dugu Larraundik. Kontuan hartuta populazio txikia garela, ikuspegi orokor hori behar dugu, eta, udalerrri bakoitzak bere kabuz joan beharrean, denok elkarturik joateko erreminta ona izan daiteke”.

Plana eguneratuz joanen da

Planaren zimenduak zehaztu dituzten arren eta dagoeneko martxan egonik ere, eragileek nabarmendu dute proiektua eguneratuz joango direla: “Plana bizia eta dinamikoa da, ebaluazio jarraitua emango zaio, eta ingurune sozioekonomikoa eta lurraldearen erronkak aldatzen diren heinean, eguneratuz joango da”. Bost sektore ekonomikorekin lan egingen da: elikadura osasuntsu eta jasangarria,

Energia Berdearen Industria, Industria orokorrean, Turismo jasangarria, eta Merkataritza eta Ostalaritza. Horietan eragiteko, Mahai edo Foro Iraunkorrak sortuko dira sektore bakoitzerako; elikadurarena 2021etik dago martxan.

“Ikuspegi orokor hori behar dugu, eta erreminta ona izan daiteke denok elkarturik joateko”

Larraungo Udala

Oraingoz, Mendialdeko hamar udalak, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Habelarte, LeitzEko, Goiener, Kaxkabeltza, Lekunberri Mugituz, Aslana, Mendialdeko Mankomunitatea, Araxes Garaiko Mankomunitatea, Gizarte Zerbitzuak, Euskara Mankomunitatea, Intia, Nafar Lansarea, Cederna Garalur eta abar daude. Era berean, Behatokiak Cederna Garalur Elkarteak izendatu du planaren sustatzaile eta dinamizatzaile gisa.

Behatokiko kideek “itxaropentsu” begiratzen diote ondu berri duten plan honi, baina jakitun dira erronka handia dela, eta ibar bakoitzaren errealitatea desberdina dela. Halere, argitu dute abiapuntu bat baino ez dela, eta beste eragile eta sektore batzuei heltzeko asmoa agertu dute: “Jakitun gara plan honek ez dituela eskualdeko erronka guztiak jasotzen. Sektore ekonomiko batzuk kanpoan gelditzen dira, etxebizitza, garraioa eta oinarrizko zerbitzu publikoen lanketa ere ez ditu bere baitan hartzen; halere, hasiera puntua da eskualdearentzat”. Plana aurrera eramaten den heinean, beste sektore edota gai batzuei ere atea irekitzeko gai izanen dira eskualdeko eragileak.

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
 E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

MALLOAK
 ARTZAI GAZTAK
 Granja Martikonea, GAINZA, Nafarroa
 Jabi. 649 472 057 + Josune. 660 511 097
 Malloak.com | info@malloak.com
 IDIAZABAL

GALBURU
 okindegia - panadería
 Egur-labeen egina!
 Alde Zaharra 50
 LEKUNBERRI
 948 50 40 42

TOLOSARA JOATEKO GARRAIOA ARAITZ ETA BETELUKO UDALEK DIRUZ LAGUNDUA

- Hilean **bi larunbatetan** eskainiko da zerbitzua.
- **Betelu, Arribe eta Atallutik** abiatuko da.
- Taxia goizean irtengo da, eta eguerdian itzuliko da.
- **Autobus txartelaren salneurri bera** izango du bidaia bakoitzak.
- Aurrez eman behar da izena.
- Izena emateko eta informazio gehiagorako, deitu **Lontxo Otamendi Taxilon** taxistari: **661 20 22 49**



30

**Hostal
Betelu**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15**
948 60 47 24



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

IORTIA CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
✉ construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846

▶ AGENDA

ILBELTZA

3- 'Goi mailako kirola eta ikasketak uztartzen' mahai-ingurua, Ibai Tolosaren (piragua) eta Ander Martinez de Rituertoren (pertika) eskutik, 19:00etan, Arribeko Elorri elkartearen; *Euskaraz Bizi* taldeak antolatua.

5- Erregeen etorrera.
Lekunberrin, 18:30ean.
Araitzen, 18:30ean.

14- Printza: **Onki Xin** taldearen kontzertua, 22:00etan.



14- Uitziko ihoteak.

21- Printza: Sexologia, feminismoa eta tantra tailerra, Pili Miqueo eta Cristina Gonzalez eskutik: 'Amor, sexo, poder... De Disney al Porno... hasta el amor y la sexualidad plena y consciente' 10:30etik 13:30era. Helduentzako izanen da. Modu parte hartzailean, aztertuko dute maitasunaren eta sexualitatearen zein eredu diren patriarkatuarenak eta kapitalismoarenak, eta horietatik hazi, gozatu eta maita daitekeen hausnartuko dute, besteak beste.

29- Ttutturre Kirol Elkarteak hasiera emanen dio Baztango Itzuli Handiari: *Bertziko Jauregia – Iñarreaka – Aizkolegi – Paretazarreta – Azkua – Etxalar.*

PUBLIZITATEA MAILOPEN
Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net.

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884




urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

aseguru gintza XXI
ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da
▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.
TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri



Egutegirako jasotako
argazki ederretako batzuk.
Eskerrik asko!